

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

- **Baliabide fisikoak:**

Proiektu hau aurrera ataratzeko beharrezkoak zaizkigu lehendabizi lokal bat alokatzea bertan dieta prestatu eta saltzeko. Izozkailua edukiko dugu gordetako janaria ondatu ez dadin eta horretaz gain labanak eta haragi pikatzailea edukiko ditugu janaria eraldatzeko eta gure produktuan bilakatzeko dietak enpakatzeko makina eta hutsean ontziratzeako poltsekin batera.

- **Baliabide intelektualak** ([webgunea](#) eta sare sozialak [Instagram → @baurf\_dieta\_durango]):

Gure webgunea eta instagram kontuaren bidez ezagutzera emango gara eta bezeroei guri buruzko informazioa eskainiko diegu. Bertan bere zalantzak plazaratzeaz gain, aldian aldian egingo ditugun deskontu eta promozioen berri jakingo dute. Hori guztiaz gainera, azalpen bideoak eta testak ere aurki dezakete.

Gure enpresan jardueraz arduratuko gara enpresaren sortzaileak izan garenak. Bakoitza bere rola zehaztuta izan arren, guztien artean lagunduko gara eta erabakiak guztien artean hartuko dira. Hala, bakoitzak jasoko duen soldata, beharrezkoak diren inbertsioak egin ondoren irabasetatik gelditzen den kopurua guztien artean bananduko da, proportzio berean. Enpresaren jarduerak, baliabideak eta finantzazioa orokorrean bereziki hasieran bazkideen aurrezkiak erabiliz ordainduko dira. Denborarekin, enpresak dituen irabasiak gastua ordaintzeko erabiliko da.

